



Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko apirilaren 6ko EBAZPENA, eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzuak ematen dituzten pertsona zehatz batzuei aurreko ikasturtetan eman zaizkien zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzen duena.

Uztailaren 6ko 185/2010 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, bere artikuluetan "eskolaz kanpoko jardueren arduradunaren" kargua arautzen du. Hezkuntza Sailburuordetzaren 1998ko maiatzaren 29ko ebazpenak, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programa deitu zuenak, agertzen ditu jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programa irakasleen funtzioak.

Lanpostuetan aritzeko aparteko era da zerbitzu-eginkizuna eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 legeak, azaroaren 7ko 16/1997 legearen bidez aldatuak, 54. artikuluan eta ondorengoa xedatzen duen lehen aipatutako akordio erregulatuak 12. artikuluan arautzen dute: "ezaugarri berezietako lanpostu edo funtzioak bete behar izanez gero, zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko deialdi espezifikoak egin ahal izango dira. Deialdi horietan egon ahal izango da zerbitzu-eginkizuna hurrengo ikasturteetan luzatzeko aukera (...)"

Ildo horretan, zenbait ikasturtetan eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzuak emateko zerbitzu-eginkizunak eman zaizkie pertsona zehatz batzuei eta zerbitzu-eginkizun horiek ondorengo ikasturteetarako luzatu dira.

Horren arabera, eta 79/207 dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10. Artikuluan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

LEHENA.-Eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzuak ematen dituzten pertsona zehatz batzuei aurreko ikasturteetan baimendu zaizkien zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzea 2018/2019ko ikasturtean.

BIGARRENA.- 2017-2018ko ikasturtean eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzu-eginkizunean aritzeko baimena lortu duten eta zerbitzu-eginkizun horretan 2018/2019ko ikasturtean jarraitu nahi duten pertsonak izango dute luzatzea eskatzeko aukera. (I. eranskina ikusi)

HIRUGARRENA.- Hezkuntza Sailaren web orrian eskura dagoen ezarritako ereduaren arabera egingo da zerbitzu-eginkizunean jarraitzea edo zerbitzu-eginkizun horri uko egitea eskatzeko idazkia eta pertsonak zerbitzuak ematen dituen ikastetxeko zuzendaritzan aurkeztuko da.

LAUGARRENA.- 2018ko apirilaren 10etik 20ra artekoa (biak barne) izango da zerbitzu-eginkizuna luzatzea edo berorri uko egitea eskatzeko idazkia aurkezteko epea.

BOSGARRENA - Zerbitzu-eginkizunean jarraitzeko edo espresuki uko egiteko eskaera ebazpen honetan ezarritakoaren arabera egiten ez dutenek gaiduko dute zerbitzu-eginkizun horretan jarraitzeko eskubidea eta uko egiten diotela interpretatuko da.

SEIGARRENA.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez, eskatzaileek baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, emango dira zerbitzu-



eginkizunak luzatzeko baimenak. Uko egiteak aipatutako ebazpenean onartuko dira. Jakinarazpenaren ondorioetarako, Hezkuntza Sailaren web orrian emango da argitara zerbitzu-eginkizunak luzatzea baimentzeari eta uko egiteak onartzeari buruzko ebazpena.

Aipatutako ebazpena argitara eman ondoren ezin izango da zerbitzu-eginkizunean jarraitzeari uko egitea eskatzeko idazkirik aurkeztu.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

ZAZPIGARRENA.-*Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak* 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, gorako errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 6a

Konrado Mugertza Urkidi
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



**I. ERANSKINA-2017-2018ko IKASTURTEAN ESKOLAZ KANPOKO
JARDUEREN PROGRAMAN ZERBITZU-EGINKIZUNEAN ARITZEKO BAIMENA
LORTU DUTEN PERTSONAK**

NAN	NAN	NAN
04133789	15233992	16251874
06970444	15237680	16264107
08902088	15239135	16784599
11904068	15250846	22701760
11914073	15349380	22705363
13055983	15352142	22706732
13058113	15352368	22708108
13066832	15352633	22709038
13078215	15353922	22709066
14243660	15358930	22710828
14243928	15363516	22712028
14243956	15365208	22713431
14244628	15372706	22713625
14248035	15392517	22719550
14251471	15896501	22726619
14566753	15909307	22727265
14566883	15920450	24401192
14568139	15921636	24402092
14572497	15928525	24402777
14575590	15930438	24402847
14575613	15936092	24404957
14583403	15938060	24406031
14584636	15953307	30553766
14921418	15954550	30559309
14924868	15975013	30574274
14926487	16027460	72249895
14931504	16029092	72255387
14931992	16033309	72389030
14932987	16037744	72432696
14937306	16232979	78861192
14938056	16241637	78862363
14939323	16242265	
14942968	16244931	
14946476	16245209	
14950148	16245331	
14952268	16245902	
14953595	16246715	